


HIU-2



Sagardotegiak



Hernaniko

ibilbide

Urdinak

→ ⌚ ↗
8,6 km. 2 h. 150 m.

Hernaniko hainbat sagardotegi lotzen dituen ibilbide honek baserri eta sagarrondo artetik igarotzeko aukera ematen digu. Zailtasun txikiko bide hau txotx garaian sagardotegietara doan jendeari zuzenduta dago batez ere. Herriko plazatik oinez irten eta sagardotegi ondoren autobusez bueltatu edota jan behar dugun sagardotegian autoa utzi eta ibilbidea egiteko aukera ematen digu.

Este recorrido que une varias sidrerías de Hernani discurre entre caseríos y manzanales. Se trata de un recorrido sin dificultad, dirigido principalmente a aquellas personas que en época del "txotx" visitan alguna sidrería del pueblo. Podría ser recorrido a pie desde Hernani y después de la sidrería regresar en autobús, o bien, dejando el coche en la sidrería, recorrerlo entero a pie.

HIU-1



Santa Barbara



Hernaniko

ibilbide

Urdinak

→ ⌚ ↗
7 km. 2 h. 200 m.

Herri-gunetik gertu, Santa Barbara mendia hernaniar askorentzat mendibira txiki bat egiteko ingurune bikaina da. Ibilbide honen bitartez, Lasarterekin muga egiten duten bideetatik pasatuz, Santa Barbara ingurua hobeto ezagutzeko aukera eman nahi dugu, mendixka honek izan duen garrantzi historikoa azalduz.

Cercano al casco del pueblo, el monte Santa Barbara es para muchos hernaniarros el entorno ideal para hacer un pequeño paseo de montaña. El recorrido, que discurre por los límites con Lasarte, nos permitirá descubrir la zona y entenderemos la importancia que este monte y su fuerte han tenido para la historia de Hernani.

HIU-4 Urruzuno




Hernaniko ibilbide **Urdinak**

  
8,6 km. 3 h.10min. 450 m.

Urteetan zehar basogintzan lan egiten zuen hainbat hernaniarren lantoki izan den arren, egun Hernaniko bailara ezezagunetarikoa da. Baserririk eta beste inolako eraikuntzarik gabea. Bailara hau osatzen duten ur-sareko erreka eta erreka-ertzak biziki garbiak eta kalitate onekoak dira. Egun, konifera landaketek nagusitasuna duten arren, pagoz eta haritzez beteriko bailaratxo eta baso-orbanak ikusteko aukera ere ematen du Urruzunok.

A pesar de haber sido durante muchos años lugar de trabajo de muchos hernaniarras que trabajaban en sus bosques, hoy en día es uno de los valles más desconocidos de Hernani. Sin construcciones e incluso carente de caseríos, la red de riachuelos que recorren el valle así como sus orillas son muy limpias y de gran calidad. A pesar de que hoy en día las plantaciones de coníferas son las más extensas, en el valle de Urruzuno tendremos la oportunidad de disfrutar de algunos pequeños pero preciosos bosques de hayas y robles.

HIU-3 Oindiri bira



Hernaniko ibilbide **Urdinak**

  
8,4 km. 2 h.45min. 285 m.

Oindi mendiaren magaletan milaka urteetan zehar gizakiak bere arrastoak utzi ditu: trikuharriak, harrespilak, saroeak edota misterioz beteriko mugarriak... Hori dela eta, ibilbide honek Oindi mendiaren inguruan zabaltzen diren bailara eder eta basatiak ikusteko aukera ezezik, gure arbasoen bizimoduaren ispilu diren hainbat aztarna ikusteko aukera emango digu, baita Hernaniko baso mistorik handienaren barrualdea ezagutzeko parada ere.

A lo largo de miles de años el ser humano nos ha ido dejando vestigios de su presencia en las laderas del monte Oindi: dolmenes, cromlechs, túmulos, majadas, mojones llenos de misterio... Es por todo ello que, además de tener la oportunidad de disfrutar de valles salvajes y bellos de los alrededores del monte Oindi, este recorrido nos permitirá descubrir vestigios que muestran la forma de vida de nuestros antepasados. Además, como si ello fuera poco, nos adentraremos en el bosque mixto más extenso de Hernani.